

**LANEUS,**  
langileok aldaketa  
euskaraz!

  
**laneus**  
langileok **aldaketa** euskaraz  
kalean zein **lanean**, askatasunean

**LAB**



# AURKIBIDEA

<b>1) SARRERA.....</b>	<b>5</b>
<b>2) KOKAPENA ETA TESTUINGURUA .....</b>	<b>7</b>
• LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO ESTRATEGIAREN EGUNERAKETA HIRU ILDOK SOSTENGATZEN DUTE.	
• LAB SINDIKATUAREN IBILBIDEAREN GARAPENA	
• EUSKAL HERRIKO ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOA, AZKEN 30 URTEETAKO IBILBIDEA	
• ORDENAMENDU JURIDIKOA	
• EGOERA SOZIO-POLITIKO ETA EKONOMIKO OROKORRA	
<b>3) OINARRI IDEOLOGIKOAK .....</b>	<b>11</b>
• HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA OFIZIALTASUNA	
– EUSKARA, EUSKAL HERRIKO BEREZKO HIZKUNTZA, LEHENTASUNEZKOA ETA EZAGUTU BEHARREKOA.	
– OFIZIALTASUNA EUSKAL HERRI OSOAN	
– LANGILEON HIZKUNTZA ESKUBIDEAK	
– HAINBAT ERREFERENTZIA	
• OREKA DEMOKRATIKOA ETA ASKATASUNA	
• OINARRI SOZIO-POLITIKOAK	
<b>4) LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO LANEUS ILDOAREN NONDIK NORAKOAK .....</b>	<b>14</b>
• ESTRATEGIAREN ARDATZ NAGUSIAK	
• LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO, HIRU ERAGIN EREMU NAGUSI (EKINTZA SINDIKALA)	
– LANGILERIAREN BAITAN	
– HERRI ESTRATEGIA	
– ALOR SOZIALA	
• EKINTZA SINDIKALA, ALDARRIKAPEN NAGUSIAK	
– LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO EGUNGO EREDUARI, LAB SINDIKATUAK ATZEMATEN DIZKION HUTSUNEAK	
– LEHENTASUNEZKO GAKOAK, EUSKALDUNTZE PROZESUA ERAGINGARRIA IZAN DADIN.	
• ADOSTASUNEAN OINARRITURIKO ALIANTZA ESPARRU BERRIAK	



## SARRERA

LAB sindikatuaren sorreratik Euskal Herri Euskalduna eraikitzea izan da gure helburu estrategikoetariko bat. Zentzu horretan, helburu horren aldeko lana eta borroka iraunkorrak izan dira sindikatuaren eguneroko jardunean.

Lan munduan euskara normaliza dadin, LABek egindako proposamen, aldarrikapen nahiz praktika sindikala koherentizatzeko, ezinbestekoa izan da barne-euskalduntzea martxan jartzea eta sindikatuaren baitan euskararen normalizazio prozesua plangintzatu zein sistematizatzea. Urteetan egindako lana handia eta emandako pausoak sendoak izan ziren; ondorioz, 2000. urtean EUSKARA sindikatuaren LAN eta KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA izatea erabaki genuen.

Bide honetan, euskararen normalizazioan eragiteko asmoz, **EUSLAB egitasmo estrategikoa** onartu genuen. Egitasmo estrategikoa eta integrala izanik, honako bi esparruak barnebiltzen ditu: **SINEUS**, sindikatuan euskara normalizatzeko ildo estrategikoa (sindikatuaren barne euskalduntzerako ildo) eta, bestetik, **LANEUS**, lan mundua euskalduntzeko ildo estrategikoa (lan munduaren euskalduntzerako ildo).

Lan munduaren euskalduntzeari dagokionean, LAB sindikatuak egindako lana ez da makala izan. Lantokietan euskara batzordeak zein euskara planak sustatzen lan sakona egin dugu eta ozen esan dezakegu lan munduaren euskalduntzean aitzindari zein erreferenteak izan garela. Egia da, era berean, euskararen normalizazioa, gehien bat, negoziazio kolektiboaren eremura mugatu den ildo izan dela, pertsonen borondatean eta tokian tokiko aukerei oso lotua. Atzera begira jarriz, ibilbide honek dituen mugak agerian gelditu direla esan dezakegu, nahiz eta lorpenak ere ugariak izan diren.

Borondatea eta aukera posibilistak gaindituko dituen estrategia planifikatu eta sistematizatu behar dugu, batetik, euskararen normalizazioaren aldeko borroka sindikatuaren ekintza sindikalaren erdigunean kokatuko duena eta, bestetik, negoziazio kolektiboak eskaintzen dizkigun aukerei muzin egin gabe, baina negoziazio kolektibora mugatuko ez dena (azken lan erreformak negoziazio kolektiboaren ahalmena erabat baldintzatu baitu).


Beraz, esan dezakegu SINEUS ildo estrategikoan egindako aurrera urratsek, nahiz lan munduaren euskalduntzean egindako ibilbide zein eskarmentuak, LANEUS estrategia egokitu eta berritzera ekarri gaituztela.

Sistema kapitalistaren krisiak eta berau aitzakitzat hartuz inposaturiko neurri, erreforma eta murrizketa guztiek sorturiko krisi ekonomiko eta sozialak, eredu berri baten beharra agerian utzi dute. Euskal herritarrok aldaketaren beharraz jabetu gara eta pertsonen interesak erdigunean kokatuko dituen eredu sozio-ekonomiko berria eraikitze-ari ekin diote. Gaurko inposizioan eta hizkuntza zapalkuntzan oinarritzen den ereduaren aurrean, langileon hizkuntza eskubideak aitortu eta bermatuko dituen ereduak eraikitzeak aukera dugu parez-pare.

Bistan da, erabakitzeak eskubidea ardatz, aldaketa sozio-ekonomikoa eta aldaketa politikoa elkarren eskutik etorriko direla. Euskal herritarrok izan behar dugu hitza eta erabakia; zentzu honetan, herritarroi dagokigu euskararen normalizazioa ere eztabaidaren erdigunean kokatzea eta urratsak ematea. Eraiki nahi dugun estatua Euskal Estatua izatea nahi badugu, estatua euskaratik eta euskararentzat eraikia izan behar duela argi dugu.

Aukera guztiak zabalik dauden momentu honetan, LAB sindikatuak Euskal Herriaren burujabetza prozesuari egin diezaiokeen ekarpen nagusia, lan mundua euskalduntzeko estrategia eraginkor eta eragingarria martxan jartzea da. Hortaz, LANEUS ildo estrategikoa egoera berrira egokitzearekin batera, ekintza sindikalaren baitan kokatzeko proposamena da.

LANEUS estrategia berritzeko arrazoi edo elementuak hauek izanik eta sindikatuan ildo eguneratzeko premia zegoen adostasuna kontuan harturik, prozesu integral bat abiatu genuen, prozesu integratzaile zein parte hartzaile. Prozesu honen helburua, sindikatu osoaren erabaki kontzientea izatea zen. Horretarako, egitura, herrialde, apa-



rato, norbanako zein militante ezberdinak eztabaidan inplikatu, euren iritzi zein ekarpenak jaso eta guztion artean proposamena osatu dugu. Urte bete iraun duen prozesuan, LABeko, ezker abertzaleko zein euskalgintzan dabil-tzan 190 kide baino gehiagorekin partekatu dugu proposamena bakarkako elkarrizketa, eztabaida talde edota ezta-baida parte hartzaileen bidez.

Prozesuaren emaitza, eskuartean duzuen txostena da. Lan mundua euskalduntzeko estrategia eguneratua aurkez-ten dugu, non epe luzera begirako helburuak finkatzeaz gain, beronen garapenerako, epe motz zein ertainean ditu-gun beharrei erantzuteko plangintzak modu planifikatu zein progresiboan garatzeko beharra agertzen duen.

LANEUS ildo estrategikoak, **integrala izatea du helburu**, lantokietan eta lan munduaren euskalduntzean era-giten duten gainontzeko esparruetan ere interbentzio lerroak proposatzen dituelako.

Lan mundua euskalduntzeko, **eragin eremu ezberdinak** bereizten dira proposamenean. Eragin eremuok, noski, ezin dira modu isolatuan ulertu, eremu bakoitzean lortzen diren adostasun zein akordioak, beste eremuetan era-giten dutelako baldintza berriak sortuz edota eremu bakoitzean emandako urratsek, bestelako eragin eremue-tan eman daitezkeen urratsak elikatu ditzaketelako.

Proposatzen dugun estrategia eraginkorra izango bada, lan mundua euskalduntzeko eremu, sektore, izaera eta esparru ezberdinetako **aliantza zein adostasunak ezinbestekoak dira. Era berean**, gure strategiak ere alian-tza berriak eraikitzeke balio izan behar du.

Lan mundua euskalduntzeko eta euskararen normalizazio ildoak ekintza sindikalaren baitan modu eraginkorrean kokatzeko proposamena da LAB sindikatuak eginikoa. Horretarako, gure eskaintza eguneratua aurkezten dizuegu hurrengo orriotan, LanEus ildo estrategiko eguneratua, hain zuzen ere.



## KOKAPENA ETA TESTUINGURUA

### LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO ESTRATEGIAREN EGUNERAKETA, BEREZIKI HIRU ILDOK SOSTENGATZEN DUTE:

- LAB sindikatuak eginiko ibilbidearen garapenaren ondorioz, baldintza subjektiboak sortu ditugu (neurri batean, baita objektiboak ere) kanpora begirako ildo estrategikoa modu planifikatu zein sistematizatuan martxan jartzeko.
- Lan erreforma ezberdinen bidez, lan harremanak desarautu eta indibidualizatzearen ondorioz, lan mundua aldatzen ari da. Testuinguru horretan, orain arteko sindikalgintza eredu krisian dago eta berau birkokatu beharra agerikoa da.
- Azkenik, Euskal Herriko errealitate sozio-politiko eta linguistikoari erreparatuz, egoerak eskatzen duen urratsa da. Nazio eraikuntzaren edota auto-eraketaren ikuspegitik, urrats atzerazinak emateko unea da.

### LAB SINDIKATUAREN IBILBIDEAREN GARAPENA

oparoa zein aitzindaria izan da lan munduaren euskalduntzeari dagokionean.

- Egindako ibilbidearen eta harturiko erabakien emaitza nagusiak:
  - Sindikatu sozio-politiko izanik, jendartean eragiteko zein proposamen politikoak egiteko izaera dugu: Euskal Herri euskalduna helburu, lan munduaren euskalduntzea.
  - EUSLAB egitasmo estrategikoa euskararen normalizazioan aurrera egiteko, barne zein kanpo mailan (SinEus + LanEus).
  - 2000. urteko kongresuan euskara sindikatuaren hizkuntza izatea erabaki zen. Berau aurrera eramateko, Hizkuntza Politika onartu zen non euskara sindikatuaren hizkuntza propio zein ofiziala dela baieztatzen den eta euskara lan eta komunikazio hizkuntza izendatzen den.
  - Administrazio eta Zerbitzu Publikoak euskalduntzeko Hizkuntza Politikaren definizioa.
- Aurrera begirako estrategia sindikala definitzeko, azken Kongresuan harturiko erabaki nagusiak:
  - Eskualde Estrategiak lehenetsi.
  - Sail sindikalen garrantzia subjektu gisa.
  - Eredu sozio-ekonomiko berriaren lanketan aurrera egin beharra.
  - Euskararen normalizazioa ekintza sindikalaren baitan kokatzeko determinazioa.

### EUSKAL HERRIKO ERREALITATE SOZIO-LINGUISTIKOA, AZKEN 30 URTEETAKO IBILBIDEA:

Euskal Herrian, euskararen normalizazioak azken 30 urteetan izaniko garapenaren balorazioa eginez gero, emaitzak berak adierazten du helburuak ez direla bete. Euskarak normalizatu gabe jarraitzen du, funtzio nazionaletatik alboratua. Ondorioz, euskal herritarren hizkuntza eskubideak etengabe urratzen dira eremu eremu.

Ibilbide horretan guztia iluna ez dela izan azpimarratu eta herri ekimenaren ekinez normalizazioa herritik hauspotu izana balioan jarri nahi dugu. Euskararen aldeko atxikimendua (eta ondoriozko deslotura) galtzen ari zen garaietan, herritarrek sustaturiko dinamika zein inizatibak lortu zuten euskararen normalizazioaren aldeko borroka berpiztea. Euskararen aldeko "militantzia" indartsua bilakatu zen, euskara nortasun ikur bihurtuz eta adin zein lurralde ezberdinetako milaka herritarrek borrokara lotuz.

Atxikimendua indartzearekin batera, kontzientziazio mailan urrats handiak eman ziren, erabiltzen ez den hizkuntza desagertu egiten dela kontzientzia hartuz. Kasu honetan ere, herritarren bultzada zein konpromisoari esker, proiektu ugari martxan jarri ziren, euskara berreskuratzeko helburu argiarekin (besteak beste, helduen euskalduntze eta alfabetatzea, Korrika...).

Azken hiru hamarkadetako bilakaerak, ordea, emergentzia egoera baten aurrera garamatza.

- Euskara, Euskal Herrian:
  - Euskara ez da Ofiziala Euskal Herri osoan: Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan euskara ez da ofiziala, ez

dago aitortua; Nafarroan Vascuenceren legea eta zonifikazioa; EAEn ofiziala izan arren, gutxitua, alboratua eta bigarren mailakoa.

– Hizkuntza Politikak: euskararen normalizazioan aurrera egiteko tresnak baino, alderdi handien arteko elkarbizitza paktuak elikatzeko truke-txanpon bilakatu dira.

- Euskararen (eta edozein nazio-hizkuntzaren) 4 funtzio nazionalak, desjabetuak:
  - Eskolaren bidezko euskalduntzea: egungo ereduaren topeak agerikoak dira (eskolak ez du euskalduntzen), D ereduaren goranzko joera gero eta apalagoa, hizkuntza hautatzeko askatasunaren iruzurra... Soziolinguistika Klusterra: haurrek klasean euskaraz hitz egiten dute, jolastokietan ez
  - Komunikazio nahiz hedabide esparruan: oso gutxi aurreratuta du euskarak (EITB 1 residuala, irrati lizentziak, euskal komunikabideen finantzaketa arazo etengabeak...).
  - Administrazioaren baitan, Zerbitzu Publikoak euskalduntzeko urratsak ez dira eraginkorrak izan: EAEko estatutua onartu zenetik, Hizkuntza Politika boluntaristak egon dira indarrean (PSEren legegintzaldian hori ere guztiz paralizatu zena); Nafarroan normalizazio funtzio errealek aitortu gabe sorturiko Euskarabidearen ibilbide ez-nahiko edota antzua; Euskararen Erakunde Publikoaren jarduerak bere mugak agerian utzi ditu... Ondorioz, hizkuntza politikak goia jo duela eta egungo jarduna ez-eragingarria dela gero eta hedatuago dago.
  - Lan munduan euskara normalizatu dadin, ez da inolako politika eraginkorrik egon (borondate politiko eta benetako asmoen adierazle). Lan munduan euskarak bizi duen egoera oso larria izanik, euskararen normalizazioa ez dago arautua, ez dira laguntza eraginkorrak bideratzen. Euskarak lan munduan bizi duen egoera ezezaguna da, administrazio publikoek ez dute inoiz kuantifikatua, ez da inolako ikerketa zein neurketarik egin. Lan munduan ez dago hizkuntza gatazkarik, aldarrikapena ez dago kalean... errealtatea ez delako inoiz ikusarazi (eta ikusten ez dena, ez omen da existitzen). Zentzu honetan, konpromiso eskasa egon da euskal sindikatuen aldetik, lan munduaren euskalduntzea agenda sindikalaren baitan kokatzeko zailtasunak agerikoak izan baitira. Lan munduan, euskalduntze prozesua galgatua dago.

## ORDENAMENDU JURIDIKOA

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak (arabideak), marko politiko-administratiboaren mugak agerian utzi ditu eta euskararen normalizazioa ezinezko bilakatzen dute. Indarrean dauden legeria eta politikak, zatiketan eta burujabetza ezan oinarritzen dira. Borondate politiko handienarekin ere, Konstituzioek ezartzen dituzten mugak estrukturalak eta gaindiezinak dira. Azpimarratzekoa da Estatu espainiarraren kasuan, ordenamendu juridikoak onartzen dituen eskubideak maila indibidualekoak direla eta espainola ez den beste hizkuntza komunitaterik ez dago aitortua. Ondorioz, euskal komunitatearen hizkuntza eskubide kolektiboak ez daude aitortuak (euskaraz ikasteko eskubidea, euskarazko komunikabideak edukitzeko eskubidea, euskaraz lan egiteko eskubidea...). Marko politiko berria (euskararentzat ere) ezinbestekoa da.

- **Estatuen ordenamendu juridiko gorenak, Euskara menpeko hizkuntza gisa arautzen du:**
  - Espainiako Konstituzioa (1978)
    - 3. artikulua honakoa esaten du:
      - Gaztelania da Estatu espainiarreko hizkuntza ofizial espainiarra.
      - Gainerako hizkuntza espainolak, ofizialak izango dira euren Erkidego Autonomikoetan, bertako Estatuetan zehaztutakoari jarraiki.
      - Espainiako modalitate linguistiko ezberdinen aberastasuna, kultur – ondasuna da eta berebiziko errespetua zein babesa izango dute.
      - 3.1. artikulua gaztelania ezagutzea norbanakoaren betebeharra dela ebazten du.
    - 1/1990 Lege Organikoa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzkoa. Ikasleek, ikas-maila bakoitzean, hizkuntza ofizialean eskuratu beharreko hizkuntza gaitasuna zehazten du. Gaztelanian eta Erkidego Autonomikoetako hizkuntza ofizialean (tartean, euskaraz) lortu beharreko gaitasuna parekatzen ditu.
    - Frantziako Konstituzioa: frantsesa aitortzen du estatuaren hizkuntza bakartzat. Bestetik, Frantziar Gobernuak ez du Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sinatu. Deklarazioa sinatzeak indar loteslea ez badu ere, hizkuntza eskubideekiko Estatuaren jarreraren adierazgarri da.
  - **Lege Autonomikoak, Estatu legeen garapena:**



- 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Erregimen Foralaren Berreskurapena eta Amejoramendua (NFK). Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Vascuenceak izaera ofiziala izango du zonalde euskaldunetan. Legeak zonaldeak definitu, euskararen erabilera arautu eta, Estatuaren marko legegilearen baitan, irakaskuntza euskalduna aginduko du.
- Vascuencearen 18/1986 Lege Forala (NFK): Gaztelania eta Euskara Nafarroako berezko hizkuntza izendatzen ditu eta herritar guztiek euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dutela onartzen du. Gaztelania eta Euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak dira: lehenengoa, izaera orokorrekoa eta, bigarrena, Legean ezarritako terminoetan. Herrialdea hiru zonaldeetan banatzen du: zonalde euskalduna, mixtoa eta ez-euskalduna (hizkuntza eskubideen aitortza ezberdina).
- 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiren Autonomia Estatutua (EAE): euskarak eta gaztelaniak izaera ofiziala Euskadin eta biztanle guztiek eskubidea dute bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko. EAEko instituzioek bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute, horretarako beharrezko arbitrajea, arautzea eta bitartekoak eskainiz. Inor ezin da diskriminatu hizkuntza arazoak tarteko.
- 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko Oinarrizko Legea (EAE): euskara eta gaztelania EAEko hizkuntza ofiziala, jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Lanbide-jarduerak, langintza, euskaraz egiteko eskubidea (aipamen bakarra, enpresa pribatuari lotua)
- **EAEko Dekretuak (legeen garapenak)**
  - 6/2003 Legea (kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutuarena). Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide gisa aitortzen du bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.
  - 123/ 2008 Dekretua (Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza eskubideei buruzkoa). 2/3 urteko epean dekretuak eskubide horiek bete beharko lituzketen enpresak zehaztu, enpresen ezaugarrien arabera. Epe horretatik aurrera legea ez betetzeak, zigorra ekarriko zuela adierazi. Eusko Jaurlaritzak zigorraren atala indargabetu, baina eskubideak eta betebeharrak aintzat hartu.

## **EGOERA SOZIO-POLITIKO ETA EKONOMIKO OROKORRA**

Sistema kapitalistaren krisiak, eta krisiaren aitzakiarekin hartutako erabaki politikoek sorturiko krisi ekonomiko eta sozialak, aldaketaren beharra agerian utzi dute. Euskal Herrian bestelako eredu baten behararen inguruko eztabaida piztu da eta eredu horren eraikuntzan urratsak emateko aukera zabalik dago. Aldaketa sozioekonomiko zein politikoa eta erabakitzeko eskubidea ardatz izango dituen prozesu soziala artikulatzea burujabetza prozesuan aurrera egiteko hartzen dugun hautua da.

- Babes Sozial eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua: krisialditik ateratzeko eta burujabetza prozesuan aurrera egiteko eredu sozioekonomiko eta marko berria behar dugu.
  - Kanpo esku hartzerik gabekoa eta nazionala.
  - Lan mundua euskalduntzeko aukera errealak eskainiko dituen: arautu, sustatu, lagundu eta babestu.
  - Lan harremanak demokratizatu eta aukera berdintasuna bermatuko duena.
- Euskal Herriaren eraikuntzan, euskararen normalizazioa helburu estrategikoa:
  - Helburua: euskaldun eleanitzez osaturiko Euskal Herri euskalduna. Horretarako, lan munduan euskara normalizatzea ezinbestekoa.
  - Hortaz, euskal langile klaseak bi erronka nagusi ditu euskararen normalizazioari dagokionean:
    - Krisialditik aterako gaituen eredu sozioekonomikoa euskaratik eta euskararentzat eraikia izatea. Aldaketa euskararen normalizazioarentzat eraginkorra ez bada, ez da benetako eredu aldaketarik izango.
      - Murrizketak, eredu sozioekonomiko kapitalistaren inposaketa dira. Murrizketen bidez, kapitalak behar duen eredu sozioekonomikoa inposatzen ari da (erdatatik eta erdararentzat). Euskararen normalizazioan, murrizketarik ez!
      - Euskara inbertsioa da, Euskal Herriaren etorkizunaren aldeko inbertsioa eta etorkizuna egunez egun eraiki behar da, inori itxaroten denbora galdu gabe.
      - Euskararen normalizazioan gertatzen diren murrizketak, euskararen normalizazioan atzerapausu kontzientea dira, hots, euskararen normalizazioari jartzen zaion galga eta kapitalak inposatu nahi duen eredu urrats bat gehiago ematea (erdatatik eta erdararentzat eraikia)
    - Euskararen normalizazioari dimentsio politikoa eman eta burujabetza prozesuaren baitan kokatu behar dugu.



## LANEUS ILDO ESTRATEGIKOAREN OINARRI IDEOLOGIKOAK

### HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA OFIZIALTASUNA:

Euskal herritarron hizkuntza eskubideak ez daude egungo markoan aitortuak ezta onartuak ere. Estatuaren ordenamendu juridikoen, mugak jartzen dizkiote euskararen normalizazioari eta, bereziki, Euskal Herriaren berreuskalduntzeari. Gatazka politiko baten erdian bizi gara eta herri bat desagerrarazteko saiakeran, hizkuntza ezinbesteko tresna bilakatu da Estatuaren zapalkuntza etengabearen. Hortaz, eskubidea izatetik, gure herriaren berezko hizkuntza izatera pasa behar da. Euskal Herria bizi eta garatuko bada, euskalduna izango da edo ez da izango. Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza den neurrian (euskarak herri egiten gaitu), euskal herritarrok hizkuntza eskubideen jabe gara.

- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa.
  - Euskal Herria da euskararen berezko lurralde libre bakarra, euskara berezkoa dugulako, propioa, geurea, nahiz eta gaur egun mundura salto egin duen eta bizirik dauden hamaika hizkuntzekin harremanetan dagoen. Berezkoa bada, lehentasunezkoa izan beharko du eta, ondorioz, ezagutu beharrekoa.
    - Berezkoa: Euskal Herriko berezko hizkuntza, normalizatu beharrekoa.
    - Lehentasunezkoa: egoera gutxituan dagoen hizkuntza izanik, lehentasunezkoa izatea nahitaezkoa da, euskararen aldeko politikak ahalbidetzeko gaitasuna eskaintzen duelako.
    - Ezagutu beharrekoa: hizkuntzaren berreskurapen-prozesua bermatzeko ezinbestekoa.
- Ofizialtasuna Euskal Herri osoan.
  - Gure hizkuntzaren berreskurapena ahalbidetuko duen estatus juridiko bakarra ofizialtasuna da. Ofizialtasuna ez da hizkuntzaren berezko ezaugarria, hizkuntza bati esleitzen zaion estatusa baizik.
  - Euskarak ofiziala izan behar du lurralde osoan, lau dimentsio kontutan hartuz: politikoa, lurraldetasuna, dimentsio kolektiboa eta objektiboa.
  - Ofizialtasun estatusa esleitzeak, ondorio juridikoak eragiteaz gain, babes eta berme juridikoak ematen dizkio euskaraz bizi nahi duen herritarrari
- Langileon hizkuntza eskubideak.
  - **Langileok eskubidea dugu euskara ezagutzeko.** Euskararen ezagutza bermatzeko irakaskuntza oinarritzko eskubidea da (edozein delarik pertsonaren adina). Pertsona batek, langile batek, euskara ez jakiteak ez du euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duen eskubidea ezabatzen. Beraz, eta bestelako formazioen kasuan bezala (eta hau lehentasunezko eta ezinbesteko formazioa da), langileok euskara ikasteko eskubidea dugu gure lanaldiaren barnean eta doan.
  - **Langileok eskubidea dugu gure lan-jarduera eta lanbidea euskaraz burutzeko.** Horretarako, baliabide guztiak eskura eduki behar ditugu: kantsultarako dokumentuak eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta baliabide informatiboak, tresnak eta produktuak.
  - **Langileok eskubidea dugu gure lan-harremanak euskaraz burutzeko.** Harreman sozioekonomikoak diren neurrian, langile-enpresa, langileon arteko edota bestelako subjektuekiko lan harremana (kontratuak, nominak, oharrak, barne komunikazioak, negoziaketak, hitzarmenak, bilkurak...) euskaraz burutzeko eskubidea dugu langileok.
  - Hauek guztiak eskubide pertsonalak (langile bakoitzarenak) eta kolektiboak (herriarenak, langilearenak) dira. **Normalizazioa era planifikatuan** egin behar da, eskubide hauetan oinarrituta eta euskararen ezagutza eta erabilera erabat normalizatzeko xedez antolatutako planetan.
- Hizkuntza eskubideak aitortu zein babesten dituzten hainbat erreferentzia:
  - Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (Bartzelona, 1996)
  - Euskal herritarron hizkuntza eta kultura eskubideen Karta (Udalbiltza)

- Euskal Herriko eskubide sozialen Karta (Bilbo, 2014)
- Euskararen Gutxienekoak zehazteko Adierazpena (Kontseilua, 2012)

## OREKA DEMOKRATIKOA. ASKATASUNA

Espainiar zein frantziar estatuek hizkuntza kolonizatze tresna gisa erabili dute mendez mendez, menperatzailearen egia nagusitu eta menperatuak izateko arrazoiak sinestarazteko ahaleaginean. Hizkuntza estatuen barne homogenizazio prozesua indartzeko elementu edo tresna gisa erabilia izan da. Diskurtso oso bat eraiki dute euskara inposaketa eta bazterkeria kontzeptuekin lotuz eta hizkuntza aukeratzeko askatasunaren aldarria euren eginez. Zentzu horretan, urteetan zehar jendartearen eraiki duten ideario faltsua desmuntatu eta gurea nagusitu behar dugu; euskararen normalizazioaren eta Euskal Herri euskaldun baten aldeko iritzia hegemoniko bilakatu behar dugu. Horretarako, borroka ideologikoa ezinbesteko bitarteko izango da.

Askatasuna balore gisa kokatu eta aldarrikatu behar dugu euskararen normalizazio prozesuan. Euskarak, Euskararen lurralde bakarrean, baldintza demokratikoak zein aukera berdintasuna behar ditu normalizazioan aurrera egiteko, euskarak askatasuna behar du biziraun eta garatu dadin. Baldintza demokratikoetan, soilik, izango dugu aukera hizkuntza baten aldeko hautua egiteko; hizkuntzen arteko oreka demokratikorik gabe, ordea, beti nagusituko da hizkuntza menperatzailea. Herri honi askatasuna ukatzen zaio, maila indibidual zein kolektiboan, hizkuntza modu askean aukeratzeko norberaren askatasuna eta herri gisa zein hizkuntzatan bizi nahi dugun aukeratzeko askatasuna ukatzen zaigu. Hortaz, euskararen normalizazio prozesuan maten diren aurrera-pausuak, herri honen askatasunaren baitan egingo diren aurrera-urratsak izango dira. Euskal Herrian, euskaldun eleanitza denak soilik du hizkuntza aukeratzeko askatasuna.

## OINARRI SOZIO-POLITIKOAK:

- Independentzia eta sozialismoa. Euskal Estatu sozialista eraikitzeke estrategia.
  - Euskaldun eleanitzez sorturiko Euskal Herri euskalduna.
    - Euskararen normalizazio osoa lortzea, maila ofizial, sozial eta pertsonalean.
    - Prozesua burura eramateko proposamen nazionala: Hizkuntza Politika Berria. Bere garaian Herritar Batasunak aurkeztu eta zabaldu zuen, baina ezker abertzale osoaren proposamena da eta kide zein antolakunde guztiak lotzen ditu.
  - Euskal Estatu normalizazio lortzeko bitartekoa eta tresna da.
- Eredu eta marko sozioekonomiko berria (Babes Soziala eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua). Erabakitzeke eskubidea ardatz, eredu sozioekonomikoaren aldaketa eta Marko propio baten eraikuntza helburu. Marko berri honek ere arautu beharko du lan munduan euskararen normalizazioa
- Kanpo esku-harterik gabeko eta Euskal Herri osorako Hizkuntza Politika nazionala eta burujabea: hizkuntza komunitateak eskubidea du bere hizkuntza normalizatzeko politika definitzeko eta garatzeko inolako esku-harterik gabe eta lurralde osoan. Lan munduan euskararen normalizazio prozesua ezagutu eta arautu behar-rekoa da.
- Ezker Abertzalearen, Hizkuntza Politikaren printzipioak:
  - Ofizialtasun erreala Euskal Herri osoan: hizkuntza eskubideetan urraketa gehiagorik ez, atzera pausu gehiagorik.
  - Belaunaldi berrien euskalduntzea bermatzea.
  - Administrazioan: funtzio publikoan lan egiten duten langile oro euskalduna, lanpostu berri guztiak euskaldunak.
  - Zonalde euskaldunak babesgune/ arnagune izendapena. Politika intentsiboak
  - Euskal Herri osorako plangintza orokorra ORAIN!
  - Baliabideak: aurrekontuen %2a zuzenean euskalduntze prozesuentzat (ekintza zehatzak antolatzeke), gutxienez. Nahikotasun printzipioa.
- LAB sindikatuaren Hizkuntza Politikaren printzipioak:
  - LAB-en hizkuntza propio eta ofiziala: euskara.

– Egoera soziolinguistikoa kontutan hartuta, sindikatuko egituraren EUSKARA sindikatuaren LAN ETA KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA da.

- Sektore eta eskualde bakoitzaren egoera soziolinguistikora egokitua.
- Mailakatua, finkatutako irizpideak denontzat izanik.
- LAN hizkuntza: euskaraz lan egiteko erabakia. Egituraren funtzionamendurako berezko eta lehentasunezko hizkuntza = euskara. Euskaraz lan egiteko gaitasuna duen kide orok euskaraz lan egingo du. Gaitasun hori ez duten kideen zeregin eta erantzukizuna, EUSLAB-en baita, gaitasuna lortzeko konpromisoa burutzea.
- KOMUNIKAZIO hizkuntza: komunikazioa euskaraz egiteko erabakia = barne eta kanpo mailan komunikatzen duen guztia euskaraz. Ezer ez da erdara hutsez komunikatuko. Euskara lehentasunezko hizkuntza, egoeraren arabera.

# LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO, LANEUS ILDO ESTRATEGIKOAREN NONDIK NORAKOAK

## ESTRATEGIAREN ARDATZ NAGUSIAK:

- Euskararen normalizazioaren aldeko borroka, **EKINTZA SINDIKAL**aren baitan kokatzeko determinazioa.
- Lan munduaren euskalduntzea **IKUSPEGI INTEGRALA**rekin ulertu eta jorratu beharra, arazoaren muinera jo eta irtenbide estrukturala bermatzeko. Lan munduaren euskalduntzean modu eraginkorrean eragiteko landu beharreko esparru nagusiak:
  - Derrigorrezko irakaskuntza (6 - 16) euskaraz. Belaunaldi berriek euskara ezagutzen dutela bermatzeko oinarritzko tresna da. Egun indarrean dauden hizkuntza ereduak ez dute euskalduntzen eta benetan euskaldunduko duen murgiltze ereduaren aldeko jarrera zein praktika indartu behar dugu. Hezkuntza Sistemak hizkuntza ofizialen ezagutza egokia bermatu behar du, erabilera ziurtatzeko. Dena den, ezagutzak, berez, erabilera bermatzen ez duenez, erabileraren aldeko apustua argia egin behar dugu.
  - Lanbide Heziketa Integrala.
    - *Lanbide Eskolak* (ikas-zentroak). Funtsezkoa da Lanbide eskolako ikas-zentroak euskalduntzea, euskarazko eskaintza espezialitate guztietan bermatuz (egun ez dago bermatua eta zenbait lanbide erdaraz soilik ikas daitezke) eta erabilera normalizatuz. Lanbidearen ikaskuntza euskaraz egitea ezinbestekoa izango da euskarazko sorkuntza zein trebakuntzan sakontzeko. Ratioak ezabatu eta ikas-zentroen eskaintza osoa (eskualdearen behar sozioekonomikoei egokitua) euskarazkoa dela bermatu behar da.
    - *Etengabeko formazioa*. Langileen etengabeko formazioa Lanbide Sistemari integratzea, euskarazko eskaintza lanbidearen beharren baitan zehaztuz (eta ez kapitalaren interesen arabera).
  - Euskal Unibertsitatea. Zenbait lanbiderako sarrera (medikuntza, arkitektura, irakaskuntza...) unibertsitate mailako tituluek ematen dute. Zentzu honetan, unibertsitateko ikasketa oro (baita ikerketa eremua ere) euskaraz eskaintzen dela bermatzea ezinbestekoa da. Kasu honetan ere, ratioen irizpidea alboratu eta Euskal Herriak dituen beharrak kontutan hartuta egiten den eskaintza osoa euskaraz bermatu beharko da. Lehenik eta behin, Euskal Herrian dauden unibertsitateak euskalduntzeko Plan Estrategiko berri eta eragingarriak martxan jarri.
  - Langabetuen formazioa euskaraz. Langabetuei eskaintzen zaien formazioa gure herriaren behar sozioekonomikoen arabera eta euskaraz eskaintzen dela bermatzea. Era berean, langabetuei euskara klaseak eskaintzea (hizkuntzaren irakaskuntza), etorkizunerako inbertsio gisa.
  - Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea. Ezagutzatik erabilerarako jauzia lineala ez bada ere, euskara ezagutzea ezinbestekoa da berau erabili ahal izateko. Zentzu honetan, euskararen ezagutza unibertsalizatu egin behar da eta eskolak euskaldundu ez dituen herritar guztiontzat zein guztion eskura egongo den Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea sustatu behar dugu.
  - Lan zentroetan, Euskararen Normalizazio Plangintzak. Lan zentroetan euskararen normalizazio prozesuak modu planifikatu, arautu, eragingarri eta iraunkorrean burutzeko tresnak dira plangintza hauek. Lan zentroa eskualde edo herriko eremu sozioekonomikoan txertatu eta horren arabera normalizazio plangintzak egin behar dira.
- **LANGILEON HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**. Langileok herritarrak garen neurrian, hizkuntza eskubideen jabe gara. Beraz, hizkuntza eskubideen aitortza eta eskubide horiek lan eskubideen baitan txertatzea, ezinbestekoa dira. Kontraesanak bilatu beharrez, sinergiak aurkitzeko garaia da (ezin da bata edo bestea aukeratu, txanponaren bi aldeak direnez, biak bermatzea dugu helburu)
- Lan mundua euskalduntzeko **ARAUTZE PROZESUA gauzatu** behar da, araubidean jarri behar da, beharrezko baliabide, bitarteko eta tresnak eskaintzearekin batera. Zentzu honetan, instituzioak interpelatu eta inplikatutako behar ditugu.
  - Hizkuntza Politika eragingarria izateko, errealitatearen **DIAGNOSI** edo **AZTERKETA** izan behar du abiapuntua (gaur egun ez dago lan munduan euskarak bizi duen egoerari buruzko inolako azterketa nazional edota zehatzik). Hizkuntza politika eragingarriak egitea bada helburu, administrazioek/instituzioek egoera-

ren argazki erreala edukitzea ezinbestekoa da.

– Era berean, ezinbestekoa izango da ORDENAMENDU JURIDIKOA egokitzea, lan munduaren euskalduntzea araubidean jarriz. Lan munduan euskararen normalizazioak babes juridikoa behar du eta langileon hizkuntza eskubideak babestu egin behar dira.

- **Euskara INBERTSIOA da.** Estatu guztiek dirua eta baliabideak bideratzen dituzte haien estatu hizkuntza babestu, hedatu eta sustatzeko. Estaturik gabeko gure Euskal Herrian, berezkoa dugun hizkuntza, euskara, normalizatzeko erabiltzen diren baliabideak eskasak izateaz gain, uneoro sumoepen dauden gastu gisa hartzen dira. Botere publikoek, enpresek eta baita jendarteak ere, euskararen normalizazioa jendarte libre zein demokratiko baten aldeko inbertsio gisa ulertu eta hala izan dadin urratsak eman behar ditugu.

- **Euskararen ARNASGUNEETAN atzerapausorik ez!** Euskararen arnasmuneak euskara hegemonikoa den eremu fisiko zein funtzionalak dira. Udalerri dagokionean, herritarren %50a baino gehiago euskaldunak direnean, udalerri euskaldun gisa izendatzen da eta, aldiz, %70a baino gehiago denean euskaldun, arnasmune. Esan bezala, ordea, arnasmunea funtzionala izan daiteke (funtzio zehatz bat hegemonikoki euskaraz betetzen denean) edo fisikoa (udalerri erdalduna izan arren, enpresa batek hegemonikoki euskaraz funtzionatzen duenean). Arnasmuneak euskararen territorio libreak dira eta euren bokazioa da inguru bustitzea, erabilera-esparruak hedatuz. Eremu hauetan ematen diren atzerapausuek galera izugarria suposatzen dute euskararen normalizazio prozesuarentzat, oso erraza baita atzera egitea, baina oso nekeza berriro urratsa aurrera ematea. Hortaz, galdu ezin diren irabazitako espazioak dira eta horrela ulertu zein babestu behar ditugu, baita lan munduan daudenak ere.

## LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO, HIRU ERAGIN EREMU NAGUSI (Ekintza Sindikala)

Lan harremanetan inposaturiko aldaketek lan munduan eragina izaten ari dira eta gaur arteko eredu sindikalak zailtasunak dauzka egoera honek sortzen dituen behar berriei erantzuteko. Hori dela eta, **ekintza sindikalaren bidez lan munduaren euskalduntzean eragiteko eremuak zabaltzea behar ditugu.** Jarraian aurkezten diren eragin eremu edo faseak, ezin dira modu estankotan ulertu, ezta elkarren segida gisa. Eremu bakoitzean lortzen ditugun adostasun eta akordioak, beste eremuetan sor daitezkeen baldintzetan eragina izango dute; batean ematen diren urratsek beste eremu batean eman daitezkeenak elika ditzakete. Dena den, guztiak estrategia berean kokatzen dira eta elkarelikatzen diren eremu gisa ulertu behar ditugu.

### • LANGILERIAREN BAITAN

– Langileen artean, lan mundua euskalduntzearen aldeko iritzi eta jarrera nagusitzea eta hegemoniko bilakatzea da helburua. **Euskararen normalizazioaren aldeko ADOSTASUN ZABALA** eskuratu beharko dugu.

– Bide honetan, **lehen geltokia Hizkuntza eskubideen ezagutza eta jabekuntza prozesua da.** Ezinbesteko abiapuntua da langileok hizkuntza eskubideen kontzientzia hartzea. Herritarrak garen neurrian, hizkuntza eskubideen jabe gara eta berauek ezagutu zein borrokatu behar ditugu, eskubideok bermatuak izan daitezkeen.

– Ibilbide luzea eta, askotan, eremu ezezaguna dela kontuan hartuta, langile klasearen baitan ezagutza eta kontzientzia zabaltzeko erantzukizuna hartzen du LABek.

– Era berean, hizkuntza eskubideen urraketaren aurrean, salaketa irmoa egin eta alternatibak eraikitzen laguntzeko konpromisoa berresten dugu.

– **Subjektua: LANGILE KLASEA.** Lan harremanetan erdal ereduak inposatzea, kapitalaren eredu sozioekonomikoa inposatzeko modu zuzena da. Izan ere, lan harremanak erdaraz eraiki dira, erdara eremu/egitura sozioekonomiko osoan inposatzeko helburuarekin. Herria eta langileriaren arteko komunikazio zubiak etetea, langileria kapitalaren mesedetara alienatzea eta bere baitan zatitzea helburu duen lan harreman eredu da gaur egungoa. Zentzu honetan,

– Langile klasearen interesak, hizkuntza eskubideak bermatuko dituen lan harreman eredu berria eskuratzeko izango da.

– Kapitalaren interesak, aldiz, egungo eredu neoliberal iraunaraztea, horretarako hizkuntzaren inposaketa ere baliatuz.

– LABen ekarpena: langileok lan mundua euskalduntzeko subjektu aktibo izatea eta proiektu politikoen norabidean kokatzea. Azken batean, LanEus ildo estrategikoaren baitan langileria aktibatzea.

• HERRI ESTRATEGIA.

– **HERRI ESTRATEGIA.** Herri estrategia herri gisa elkarrekin egin behar dugun bidea da, zeinak interes partidistak alboratuko dituen, kolektiboaren beharretatik abiatuko den eta herri gisa biziraun zein garatzeko bitarteko nahiz tresnak eskuratzea izango duen lehentasun. Azken batean, burujabetza ariketa praktikoen planifikazio ordenatua da. Burujabetza ariketa horien artean, euskararen normalizazioa kokatzen da eta horren baitan lan munduaren euskalduntzea.

– Euskal Herria euskalduntzearen alde dauden indarren arteko *Akordio Zabala*, zeinak honen alde dagoen gehiengo soziala aktibatu nahiz artikulatzeko ere balioko duen.

– Akordioaren garapenean, baina bata bestea baldintzatu gabe, lan munduan euskara normaliza dadin, bertan jarduten dugun subjektuen arteko *Akordio espezifikoa* ere beharko da. Akordio honek helburu komunak adostea eta norabide berean urratsak elkarrekin ematea ahalbideratu behar du.

– **Subjektua: euskararen NORMALIZAZIOAREN ALDEKO INDARRAK eta LAN MUNDUAN SUBJEKTU direnak.**

– Akordio Zabalarik dagokionean, euskararen normalizazioaren alde dauden indar politiko, sozial, sindikal zein instituzionalak izango dira subjektu.

– Lan mundua euskalduntzeko Akordio Espezifikoa dagokionean, aldiz, lan munduan subjektu direnen arteko (enpresariak/patronala, langileria/sindikatuak, administrazioa/instituzioak eta herritar aktibo/pasiboak-erabiltzaileak) adostasuna ezinbestekoa izango da.

– Ezker Abertzalearen ekarpena: Euskal Herria euskaldundu dadin, estrategia partekatua eraikitzea (Euskal Bidea) eta honen garapen espezifikoa (Euskararen Bidea).

– Eragile soziopolitikoak den neurrian, ezker abertzalearen baitan egiten dugun ekarpenaz gain, LABen ekarpen espezifikoa bi norabideetan kokatu behar dugu, biak elkarelikatzen direla ulertuz:

▪ Estrategia sozioekonomikoa: euskal esparru sozio-ekonomikoa non euskara normalizatua egongo den. Hizkuntza Politiken Institutuaren sorrera sustatu.

▪ Lan mundua euskalduntzeko estrategia: LanEus ildo estrategikoa

16

• ALOR SOZIALA:

– **Interes ezberdinen arteko GEHIENGO SOZIALAK ERAIKITZEARI begira:**

– Eredu sozioekonomiko berriaren lanketa. Erreforma, murrizketa... eta egungo testuinguruaren salaketan zein eredu berri baten aldeko jardueran, zeharlerrotasuna landu eta proposamenetan integraltasuna ziurtatze aldera, euskararen presentzia (funtzionamenduari dagokionean) eta normalizazioa (helburu gisa) naturaltasunez bermatzeko determinazioa.

– Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta. Euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzeaz gain, hizkuntza eskubideak bermatu eta garatuko dituen eredu euskaldun berri baten alde borrokatzeko tresna gisa ulertu behar dugu Karta. Interes komuna Karta Sozialak jasotzen dituen eredu sozial berriaren ardatzak izan arren, interes ezberdinen artean, baldintza demokratikoetan oinarrituriko adostasunak eraikitzeak aurrerak sustatu behar ditugu.

– Lan munduaren euskalduntzearen premia, eskualde estrategien bidez, herriratzea. Lan mundua euskalduntzeko urratsak ezin dira lan zentrori mugatu. Izan ere, udalerririk ez da euskalduna izango, lan mundua euskaldundu gabe. Zentzu horretan, lan munduaren euskalduntzeak tokian tokiko errealitatean duen eragina (eta alderantzizko jarrera) ulertu eta lan munduaren euskalduntzea eskualdeko estrategien baitan txertatu behar dugu.

– **Subjektua: ALDAKETAREN ALDEKO ERAGILE SOZIAL ETA SINDIKALA (LAB motore).** Kasu honetan, guk gure bidea determinazioz egin behar dugu eta bidea egin ahala, adostasunean oinarrituriko gehiengo sozial berriak eraiki beharko ditugu, euskararen normalizazioaren alde.

**EKINTZA SINDIKALA, ALDARRIKAPEN NAGUSIAK:**

Orain arteko praktika sindikalean, euskararen normalizazioa negoziaketa kolektiboan kokatzen genuen gehien bat, une hori baliatuz enpresan normalizazio planak, euskara planak, adosteko.



Negoiazio Kolektiboan Espainiar Gobernuak eginiko erreformak, zuzeneko eragina izan du lan harremanetan eta langileen lan baldintzatan: batetik, negoziaketa kolektiboa gero eta langile gutxiagori eskaintzen dio babes eta, bestetik, negoziatzeko aukera dagoen esparruetan ere, euskararen normalizazioan eragiteko mugak eta zailtasunak gero eta ageriagoak dira. Horregatik, euskararen normalizazioan eraginkorrak izate aldera, gaia ekintza sindikalaren baitan kokatzea besterik ez dugu.

Egun indarrean dagoen Hizkuntza Politika ez da eragingarria Euskal Herria euskalduntzeko eta, are gutxiago, lan mundua euskalduntzeko. Hortaz, indarrean dagoen euskalduntze eredu bera dago zalantzan, ez nahikoa eta mugatzailea da, normalizazioan aurrera egitea eragozten du.

Lan mundua euskalduntzeko egungo ereduari, LAB sindikatuak honako hutsuneak atzeman dizkio:

- **Abiapuntua ez da errealitatearen ezagutza.** Instituzioek ez dute inolako azterketa, neurketa edota diagnosirik egin, lan munduan euskarak bizi zuen errealitateari buruz. Nekez aldatuko da egoera, aldaketa prozesua nondik abiatu behar den ezagutu gabe.
- **Helburua ez da euskararen normalizazioa,** are gutxiago Euskal Herriaren euskalduntzea. Helburu gisa, gehienez, euskara eta erdara (espainola eta frantsesa) parekoak izatea kokatzen da eta horrek galgaturiko euskalduntze prozesu batera garamatza. Eredu sozioekonomikoan, lan harremanak gaztelaniaz eraiki dira eta une honetan nagusitasun osoz gaztelaniaz ematen dira. Euskararen normalizazioa enpresa gutxi batzuetan martxan dauden euskara planetara mugatzen da eta instituzioen aldetik ez dugu ikusten haratago joateko inolako asmori.
- **Borondatean oinarrituriko Hizkuntza Politika da.** Oro har, instituzioen aldetik ez dago eremu sozioekonomikoan euskararen normalizazioa arautzeko eta babesteko inolako asmorik. Batetik, normalizazioaren aldeko erabaki politiko argirik ez egotearen ondorioz, norberaren borondatean (on zein txarrean) oinarritzen da eta ez da hasi nahiz bukatuko den prozesu gisa aurrera eramaten, modu planifikatu, arautu eta ordenatuan. Bestetik, Hizkuntza Politikaren aplikazio bera ere borondatekoa da eta horrek eskubidearen betetzea ere borondateko bilakatu dezake (eskubidea urratzea ere norberaren borondatearen arabera, aukera bilakatu daiteke).
- **Euskalduntze prozesua langileen bizkar uzten da, baina langileen parte hartzerik gabe.** Lan zentroetan, euskararen normalizazioa negoziazio kolektibora eta langileak euskalduntzeko aukeratara mugatzen da, beti ere ardua langileengan utziz eta langileen ordezkaritza guztiz mugatuz. Batetik, proposatzen diren neurri gehienak, langileei zuzendurikoak dira, lan mundua euskalduntzea ez egotearen zama langileen bizkar jarriz eta langileak (norbanakoak) euskalduntzearekin soilik, erakundea euskalduntzeko litzatekeela sinestaraziz. Bestalde, langilea ez da ulertzen euskalduntze prozesuan subjektu aktibo gisa, objektu pasibo gisa baizik (maiz, oztopo gisa). Erakunde baten euskalduntzea langileekin soilik nekez gauzatuko da, baina langilerik gabe, ezinezkoa da euskalduntzea.

Hori dela eta, jarraian aurkezten direnak, lehentasunezko gakoak dira LABen egitasmo estrategikoaren baitan, Ekintza Sindikalaren bidez, zeharka edota modu zuzenean landu zein borrokatu beharrekoak :

- **Helburuak erakundea euskalduntzea** izan behar du, erakundearen hizkuntza euskara izatea (lan eta komunikazio hizkuntza izatea). Zentzu horretan, erakundearen baliabide/bitarteko guztiak helburura egokitu beharko dira, baita langileak ere.
  - Sindikatua gisa, langileen eskubideen defentsan jarduten dugun neurrian, gure lehentasuna da euskara lan eta komunikazio hizkuntza izatea. Gure eskubidea da, guri dagokigu, gure egitekoa da, eta guk egiten ez badugu, ez du beste inork egingo.
  - Lan munduaren euskalduntzea balioan jarri behar dugu eguneroko bizitza publiko-pribatuan duen eraginagatik eta ekarriko duen erabilera-aukeren biderkatzeagatik. Hortaz, euskarak lan munduarekiko duen funtzio nazionala berreskuratu eta lan harremanak demokratizatu behar ditu.
  - Euskara zerbitzu hizkuntza gisa bermatzeak, jendartearekiko efektu biderkatzailea duela kontutan hartuta, hainbat eremutatik zerbitzu hizkuntza lehentasunezko zat jotzen da.
  - Euskal Herria euskalduntzeko bada, euskarak bere osotasunean beharko luke normalizatu; hortaz, bi ikuspegiak batera landu behar dira, mailaketarik egin gabe, baizik eta norberak bere funtzio/ egitekoari jarraituz, osagarriak eta ezinbestekoak direlako lan mundua euskalduntzeko.

- Erakundeen euskalduntzea, prozesu arautu, planifikatu, ordenatu eta progresiboa izan behar du (helburuak, epeak, ekintzak, arduradunak... zehaztu). Ezin da norbanako edota zenbait kolektiboren borondatearen menpe utzi. Zentzu honetan, jarraipena eta ebaluazioak etengabekoak izan beharko dute, prozesua hobetzea helburu, baina ez langileenganako kontrol soziala areagotzeko.
  - Zentzu honetan, Euskara Planak erakundearen euskalduntze prozesua garatzeko tresna dira eta ezin da helburu bilakatu. Kontutan hartu behar dugu, enpresaren izaera, funtzio edo osaketaren arabera, bestelako formulak existi daitezkeela (adibidez, merkataritxikiei begira), beti ere, prozesu arautu, ordenatu eta integrala izango dela bermatuz.
- Langileak euskalduntze prozesuan eragile eta subjektu garenez, prozesuaren diseinu eta inplementazioa partekatua izatea ezinbestekoa dela irizten diogu (prozedurak adostu, helburu partekatua, plangintza komunak...) eta prozesua arrakastaz burutzearen bermea. Horretaz jabetu behar dugu eta aitortu behar zaigu.
  - Eragile: beste langileengan zein zuzendaritzarengan eragiteko gaitasuna dugulako.
  - Subjektu: erakundea langileez osatua dagoelako, euskalduntze prozesua langileekin batera gauzatu behar delako eta langileen parte hartzeari bide eman.
- Langileoi dagozkigun hizkuntza eskubideak, lan eskubideen baitan kokatu eta modu integralean landu behar ditugu. Lan eta hizkuntza eskubideen arteko sinergia berriak gauzatu behar ditugu, langileon eskubide guztien defentsa eginez eta lan zein hizkuntza eskubideen artean harreman zuzena dagoela mahai gaineratuz. Zentzu honetan, ezin dugu baten edo bestearen aldeko hautua egin edota modu kontrajarrian landu, osagarriak diren neurrian, biak elkarrekin borrokatu behar ditugu.
  - Langileok eskubidea dugu (oinarri ideologikoetan zehaztasunak):
  - Euskara ezagutzeko.
  - Euskaraz lan egin eta lanbidea euskaraz garatzeko.
  - Lan harremanak, formalak zein informalak, euskaraz edukitzeko.
- Erabilera euskalduntze prozesuen ardatz. Oro har, ezagutzak erabilera bermatzen ez duenez eta euskaldundu beharrekoa erakundea bere osotasunean denez, normalizazio prozesuek erabilera sustatzea izan behar lukete ardatz. Ezagutza unibertsalizatzea (norbanakoa) abiapuntua izan arren, espazioak euskalduntzearen aldeko desoreka egin behar da, erabilera-aukerak handitze aldera.
  - Euskara ezagutu/jakin beharrekoa da. Langile berriek lanpostuaren araberako euskarazko gaitasuna bermatua izan behar dute. Egoera oso ezberdinen aurrean topatuko garenez, euskararen gaitasuna zentzu zabalean ulertu behar da eta egoeraren arabera egokitu, helburua enpresaren hizkuntza eredu aldaketa ematea dela ulertuz.
    - Langile berriak direnean, lanpostuaren araberako hizkuntza gaitasuna erakutsi behar dute lanean hasi orduko, lan-zentroaren hizkuntza eredu egokitzeko moduko hizkuntza gaitasuna izan behar dute.
- Eremu publikoan, erakunde publikoetan, Hizkuntza politika berri bat behar da.
  - Orain arteko hizkuntza politikak bereak eman ditu eta ordua da erakunde publikoetan hizkuntza politika berria praktikan gauzatzeko.
  - Zama langileen gainetik kendu eta erantzukizuna, bere osotasunean, erakundearen gainean jarri behar da. Erakundearen harreman eta funtzio guztietan gauzatu behar da hizkuntza ereduaren eraldaketa. Erakundea da normalizatu beharrekoa.
  - Hizkuntza gaitasunean nolabaiteko aurrerapausoak eman badira ere, "nolabaiteko gaitasun" hori ez da nahikoa erakundearen hizkuntza-normalizazio eredu aldaketak eragiteko. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea ez da nahikoa euskararen normalizazioa bermatzeko erakunde publikoetan.
  - Kalitateko zerbitzu publikoa eskaini ahal izateko, euskararen balioa eta premia ezinbestekoak dira erakunde publiko moderno eta demokratiko batean.
  - Erakundearen ardura da baliabideak eta aukerak bermatzea langile publikoak erakundearen hizkuntza kategoriarantz egoki daitezen. Euskararen normalizazioa prozesu moduan ulertu behar da eta prozesu horretan langile publikoak egokitu egingo dira garaiko helburuetara. Publizazio prozesuetan, barne promozioetan edota lan-eskaintzatan, langileek argi izango dute zein den erakundearen helburua eta helburu horretara egokituko dira. Erakundearen ardura izango da langileak helburura egokitzeko aukerak eta baliabideak eskaintzea.
- Euskara batzordeak, euskalduntze prozesuaren gidari eta bermatzaile. Euskalduntze prozesuaz soilik ardura-

tuko den Batzorde espezifikoa izan behar du, erabakiak hartzeko gaitasuna izango duena eta egiteko zehatza aitortuko zaiona (euskararen normalizaziorako prozesua gidatu, bermatu eta jarraipena egin) zeinak bere lana aurrera eramateko beharrezkoak dituen bitartekoak bere esku izango dituen. Batzorde honen osaketari dagokionean, subjektu direnen parte hartze parekidea (zuzendaritza eta langileen ordezkariak) ezinbestekoa izango da.

- Honako bi momentu orokor daude erakundeen euskalduntze prozesuetan:
  - Bata, erakundearen euskalduntze prozesuaren norabidea erabakitzea da, erabaki politikoak hartzeko momentua. Une honetan, Euskara Batzordean biltzen diren subjektuon arteko adostasuna lortzea da helburua, euskalduntze prozesuaren helburuak definitzeko.
  - Bestea, Euskara Batzordean hartzen diren erabakiak aurrera ateratzeko sistematizazioa zein euskalduntze planaren implementazioa dira, lan teknikoak biak. Bada, bi hauek dira hizkuntza teknikariei egozten dizkiegunak. Kanpo-aholkularitzen aurrean, erakundearen (barne) teknikariak hobetsiko ditugu, baina teknikari propioen gabezia, aholkularitzekin elkarlana sustatuko dugu.

### **ADOSTASUNEAN OINARRITURIKO ALIANTZA ESPARRU BERRIAK ERAIKI**

Hau guztia aurrera ateratzeko, lan munduan euskararen normalizazioaren aldeko indar metaketa ahalbideratu behar dugu eta horretan, LAB motore eta erreferentzia izango da. Euskal Herria eta lan mundua euskalduna lortzeko, gure konpromisoa eta ahalegina agertu eta praktikan gauzatu dugu.

Lan mundua euskaldunduko bada, maila, eremu, sektore eta esparru ezberdinetako aliantza zein adostasunak ezinbestekoak izango direla kontutan hartuta, gure egitasmo estrategikoak aliantza esparru berriak eraikitze balio behar du.

Bidea erraza izango ez bada ere, ziur gaude adostasun txikietatik adostasun handiagoak lortuko direla eta horiek baldintza berriak sortuko dituztela aliantza berrietarako. Hortaz, etengabe landu behar den eremua dela uste dugu, gure ildo estrategikoan oinarriturikoaren baitan, elkarlanerako eskaintza etengabearen bidez.

Zentzu honetan, lehenetsunez jotzen ditugu euskal gehiengo sindikalarekin eta euskalgintzarekin lortu beharreko adostasun zein aliantzak, euskararen normalizazioaren aldeko gehiengo soziala irudikatu eta praktikan gauzatzeko.

LanEus strategiaren eguneraketa, lan mundua euskalduntzeko LABek egiten duen ekarpena da. Lan munduak etengabeko aldaketak bizi ditu eta, ondorioz, LAB sindikatuaren eredu sindikala ere egokituz joan behar da, behar berriei erantzun egokia eman eta Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna eraikitze. Hortaz, LanEus ildo estrategikoak eta, bere osotasunean, EUSLAB egitasmo estrategikoak, Euskal Herri euskaldunari eta Babes Sozial eta Lan Harremanetarako Euskal Esparru Propioaren eraikuntzari LAB sindikatuak egiten dion ekarpena da. Berrito ere, LAB sindikatuak Euskal Herria euskalduntzeko prozesuarekiko dugun gure konpromisoa berresten dugu.



[www.lab.eu](http://www.lab.eu)